



# IRA × KUR LEE

▲ 2024



donostia  
kultura





Aurten ere, Donostiako Udal Liburutegien Sareak irakurketa-sorta bat aurkezten dizue uda honetarako eta 2024rako.


Adimen Artifiziala goraka doan garai hauetan, zuen adimen naturala lantzen lagunduko dizueten liburuak gomendatu nahi dizkizuegu, bai helduoi bai txikioi. Pixka bat edo gutxi-asko, udan zeuen adimena lantzeko aprobetxa dezazuela proposatu nahi dizuegu, era guztietako gaiak jorratzen dituzten tamaina eta mota askoko liburu hauen bidez. Eta, hori egiteko ba al da bide hoberik gozatzea eta irudimena aberastea baino?

'Irakurlee 2024' gidak iaz argitaratutako liburuak biltzen ditu, eta hiru ataletan banatuta dago:

- Lehen atalean haurrentzako liburuak daude eta 64 libururen aipamenak biltzen ditu, 32 euskaraz eta 32 gaztelaniaz; liburuak adinen arabera sailkatuta daude:

- 0 urtetik aurrera, gure bebeteketan eskuragarri dauden liburuak.
  - 5 urtetik aurrera, irakurketa informaleko gunean aurkituko dituzunak.
  - 8 urtetik aurrera, liburu bizkarrean ageri den pegatina gorriagatik bereizten direnak.
  - 12 urtetik aurrera, pegatina horia dutenak.
- 
- Bigarren atala helduentzako atala da eta 40 liburu biltzen ditu, 20 euskaraz eta beste 20 gaztelaniaz, guztiak narrazio generokoak.
  - Azkenik, eLiburutegian eskuragarri dauden liburu elektronikoen aukeraketa egin da.

Liburuak letrez, hitzez, esaldiz, paragrafoz, datuz, ideiaz eta esperientziaz beteta daude, gure adimena elikatzen dute eta ikasteko, aztertzeko, irakurtzeko, idazteko eta sortzeko aukera ematen digute. Gida honetan agertzen diren liburuetan zeure buruari amain ematera gonbidatzen zaitugu.





## Maite zaitut maite, maittea!

Alexandra Garibal;  
Caludia Bielinsky (irgile.)  
Ibaizabal, 2023  
[I-82-3 G Haurtxo]

Maite zaitut, maite, maittea...  
Lehoiaren indarrez maite, elefantearen  
handitasunez maite, jirafaren  
luzetasunez maite.

0+





## Plast!

Sophie Moronval;  
Nicolas Trève (irgile.)  
Tarttalo, 2023  
[I-82-3 M Haurtxo]

Bainatzeko ordua! Untxitxoa gustura sartu da bainuontzian!  
Baina, bat-batean... Dan-dan-dan!  
Nor dabil ate-joka? Atxatu leihatila,  
nor den ikusteko.



## Eguzkia ezkutatzen denean

Alicia Acosta; Mar Ferrero (irgile.)  
NubeOcho, 2023  
[I-82-3 A Haurtxo]

Eguzkia badoa bihar artean. Alai ezkutatzen da mendien atzean.  
Egunaren amaieran, familia anitzek etxerako bidea hartzen dute. Lotarako ordurako poema goxoa.



## Goazen etxera, tigre txiki

Carolina Búzio  
Ibaizabal, 2023 [I-82-3 B Haurtxo]

Lagundu tigre txikiari etxerako bidea aurkitzen.






## Zeren usaina du zure kakak?

Thierry Bedouet  
Ikasmina, 2023  
[I-82-3 B Haurtxo]


Nork dio animalien kakak gaizki usaintzen dutela?



## Erbia eta Dortoka: bigarren aukera

David Pintor  
Pamiela, Kalandraka; 2023  
[I-82-3 P Haurtxo]

Alegia klasikoaren bertsio dibertigarri eta transgresorea, argitzen diguna zein den dortokak lasterketa irabaztearen benetako arrazoia.



## Gehitxo

Olivier Tallec  
Txalaparta, 2023  
[I-82-3 T Haurtxo]

Ahulak dira zuhaitzak, ongi zaindu behar dira. Lagun bat bezala zaindu behar dira. Neure zuhaitzak eta biok ongi zaintzen dugu elkar. Batzuetan, bere pinaburu bat ematen dit. Bat ez da sobera, baina, kasu, denak gehitxo izan daiteke. Oreka bilatu behar.



## Maddiren aireplanoa

Antton Kazabon;  
Maite Rosende (irgile.)  
Denonartean, 2023  
[I-82-3 K Haurtxo]

Ama! Hegazkina da, aireplanoa, eta neu naiz gidari, neu kapitain.






## Nondik sortzen da haizea?

Xabier Mendiguren;  
Mirari Sagarzazu (irgile.)  
Elkar, 2023 [I-82-3 M]

Txiki-txikia nintzenean, dena nekien nik. Banekien eguzkia nondik sortzen zen eta nondik ezkututzen. Banekien masusta gozoenak non biltzen ziren. Banekien gure katu Xaxa non etzaten zen gozotan. Ia dena nekien nik txikia nintzela, gauza bat izan ezik: ez nekien nondik sortzen den haizea.








## Ile bat zopan: ipuintxo absurdo bat

Alex Nogués Otero; Guridi (irgile.)  
*Txalaparta, 2023 [I-82-3 N]*

Ile bat ez da zopan ager daitekeen gauzarik bitxiena. Euli bat ez da zopan ager daitekeen gauzarik bitxiena. Badakizu zer den zopan ager litekeen gauzarik bitxiena?



## Bisita

Nuria Figueras; Anna Font (irgile.)  
*Pamiela, Kalandraka; 2023 [I-82-3 F]*

Axerikumea bakarrik geratzen da gordelekuan, eta amak atea inori ez irekitzeko esan arren, bisita harrigarri bati sartzen uzten dio: Isiltasunari.




## Lolaren bizikleta

Alba Barbé i Serra,  
Laia Pibemat i Mir;  
Judit Piella Clarà (irgile.)  
*Bellaterra, 2023 [I-82-3 B]*

Gau batean, hautsi egin da Lolaren bizikleta. Baina Lola egun gutxiren buruan konpondu du bizikleta. Ez zaio txirrina baino falta. Itsasoko ur azpian, bizikletak txirrina jo du, Lolari deika. Biak batera, amarekin mintzatzeko modua aurkitu dute: ez dute osaba itzultzerik nahi.





## Ipurdiak: ezinbesteko gida

Eva Manzano;  
Emilio Urberuaga (irgile.)  
NubeOcho, 2023 [I-82 3 M]

Ez ditugu ipurdiak ondo ezagutzen. Ba al zenekien piper formako ipurdiak daudela? Eta ipurdi urdinak, gorriak, gardenak, orbaindunak... Baita koloreanitzak ere!



## Tximeleta haurra

Marc Majewski  
Alberdania, 2023 [I-82-3 M]

"Tximeleta bat naiz!  
Azken ukitua...  
eta prest nago abiatzeko."



## Inesa Gaxen: sorgin ausart baten historia

Olaia Irigoien; Elsa Sabater (irgile.)  
Adapta, 2023 [I-IE 82-3 I]

Liburu honetan Inesa Gaxenen historia zirrargarria ezagutuko duzu.

Sorgina izatea leporatu zioten emakume baten bizitza.



## Goiz lainotsu bat

Nono Granero  
A Fin de Cuentos, 2023 [I-82-3 G]

Laino trinko batek den-dena estali du, eta ez da ezer ikusten. Nola jakin, orduan, nor etorri zaizun bisitan? Eta nortasun-faltsutsutzaile beldurgarri bat balitz?





## Istripu handia

Izaro Arroita; Josevisky (irgile.)  
Elkar, 2023 [I-82-36 ARR]

Eskolako laborategian izandako istripu handi baten ondorioz Lina plastilinazko bihurtuko da. Bere gorpuzkera berriak emandako aukerari esker, liburuan sartu eta hortik aurrera abentura mordo bat biziko ditu.






## Mundua pitzatuta dago bana hantxe gabilta oinez

Harkaitz Cano;  
Isabel Herguera (irgile.)  
Erein, 2023 [I-82-31 CAN]

Alabarekin nola komunikatu ez dakien aita batek paperezko hegazkin bat bidaltzen dio egunero balkoitik agur esateko. Hegazkinetan idatzitako mezuen bidez, aitak literatura-misioak jartzen dizkio alabari. Horrela, liburuen eta bizitzaren arteko lotura ezagutuko du neskatoak.



## Gora gure alkate jakintsua!

Txabi Arnal Gil, Edu Zelaieta;  
Mikel Santos (irgile.)  
Elkar, 2023 [I-82-35 ARN]

Hiritarrek arazo larri bat dute, eta horregatik jo dute Alkatearengana. Aholkulari talde batekin bildu ondoren, arin eta prestu erantzun die Alkateak; jakintsua izateaz gain, beti baitago hiriaren alde. Hiritarren zerbitzura. Baina arazoaren konponbideak beste arazo bat sortuko du.



## Ilargiaren xuxurla

Juan Kruz Igerabide;  
Manuel Ortega Santos (irgile.)  
Giltza, 2023 [I-82-31 IGE]

Ursha bere gurasoekin eta anaia txikiarekin iritsi da Esloveniaren eta Kroaziaren mugatik gertu dagoen Mali oki herrixkara. Han emozio asko biziko ditu, beldurra barne; esaterako, amak leihoan utzitako tarta jatera etorri zen hartzari aurre egin behar izan zionean.



eLiburutegia



## Ez duzu sinetsiko

Aintzane Usandizaga;  
Asier Iturralde (irgile.)  
Txalaparta, 2023 [I-82-31 USA]

Jonek bere adineko aukozide berri bat du: Samira. Etorri berria ez bezala, hizlaria da Samira, eta berehala hasiko zaizkio eskolakoak eta lagunei buruzkoak kontatzen. Balkoiak alboz albo dituzte, ez dago ihesbiderik; ezta nahi ere: Jonek adi-adi entzungo ditu istorio liluragarriak.



## Ezin ezetz esan

Mariasun Landa;  
Andrea Prosper Morán (irgile.)  
Erein, 2023 [I-82-35 LAN]

Herri txiki eta berezi honetan, inoiz ezagutu ez den fenomeno bat gertatu zen: EZ hitza erabat desagertu zen jendearen aho eta bihotzetatik... Ez zuten EZ bezalako hitzik ezagutzen, ezta horren beharrik sentitu ere.





## Txangoan txiripaz

Josephine Mark  
Astiberri, 2023 [I-82-91 M]

Egun arrunt bat basoan. Margari satorra erizaina da, eta gaixo guztiak xiringa sartzeko zain dauzka kontsultan. Bat-batean, ehiztari bat agertuko da handik eta hemendik tiroak jotzen.



## Azken denbora

Nerea Loiola  
Erein, 2023 [I-82-33 LOI]

Istorioko honetan gertatuko dena zure eskuetan dago, zu zara protagonista! Arriskuak, dilemak, eta abenturak aurkituko dituzu. Erabakiak hartu beharko dituzu eta enigmak ebatzi. Zure gaitasunak eta adimena erabili beharko dituzu. Erabaki txar batek hondamendia eragin lezake... eta heriotza ere bai!



## Camus gaztearen eskutitzak

Galder Regera  
*Giltza, 2023 [I-82-31 REG]*

Denbora igaro da. Agian gertatu zitzaiguna gogoratzeko, hartatik ikasteko une da. Institutuko ikasle gazte baten ahots zintzotik eta eguneroko esperientziatik egingo dugu.



eLiburutegia





## Artxipelagoa

Xabier eta Martin Etxeberria;  
Alex Sanvi (irgile.); Sedyas (kol.)  
Elkar, 2023 [I-82-91 E]

2103, kontinente gehienak ur azpian daude. Bizirik irautea lortu dutenek baliabide gutxiko eszenatoki berri eta zatikatu batean nabigatu behar dute. Jare oreka zaharrak hautsi eta aliantza berriak sortu nahian dabilen konplot arriskutsu batean murgilduko da ustekabeen.



eLiburutegia



## Lima: urrezko guraizeak

Miren Gorrotxategi Azkune  
Elkar, 2023 [I-82-36 GOR]

Bertokira iritsi berri diren Xana eta Mouraren familiak kinka larrian jarriko du herri osoa, olatu artifiziala eraikitzeko proiektua baitute esku artean. Proiektuak Paulita etxegabetzea ekarriko luke, eta Lima ez dago hori gertatzen uzteko prest.




## Arerioak lagun

Carlota Ezquiaga;  
Rubén B. Caballero (irgile.)  
Alai, 2023 [I-82-31 EZQ]

Denboraldia amaitu da, baina uda disfrutatzen ibili ordez, goibel ikusi ditu Edurnek bere futbol-taldeakideak. Animatzeko, udako txapelketa batera apuntatu ditu. Hemen lagun berriak egingo dituzte, eta haien artean tira-birak sortuko dira.







## Sorginaren hil ala biziko sekretua

Anastasia Atutxa Zamkova  
*Ibaizabal, 2023 [I-82-36 ATU]*

Nagorek min egiten dio sekretu bat du gordeta Jonathan senargaia hil zitzaionetik. Oskar Ingalaterratik etorriko da anaiaeren heriotza ikertzeko asmoz. Baina ikerketak Nagoreren familia jarriko du arriskuan.



## Ekoline, Pariseko margolaria

Stephen Desberg;  
Teresa Martínez (irgile.)  
*Harriet, 2023 [I-82-91 D]*

Zakur zahar bat, jazz piano-jotzailea lanbidez, Ekolineri -gure txakur margolariari-, esaten ari zaio margolan baten edertasuna ez dela hura egin duen animaliaaren araberkoa, lan hark transmititzen dituen emozioen araberkoa baizik.



## Gaizkileen galtzada: Leitzako dorreak

Garazi Albizua;  
Amaia Ballesteros López (irgile.)  
*Pamiela, 2023 [I-82-32 ALB]*

Fikzioa eta historia bilbatzen dira XIV. Mendeko gaizkileen mugako gizartearen adierazgarri izan ziren bidelapurrak, ahaide nagusien boterea, herritik hesitu bezala basorantz bidalitako pertsonak, gosetea eta, oro har, giroa gogortzen zuten botere nahiaren ustelkeria sarea adierazteko.



A man and a woman are smiling and posing for a photo. The man is on the left, wearing a dark V-neck sweater, and is pointing towards the camera. The woman is on the right, wearing a black and white striped shirt, and is holding up a large white speech bubble. The speech bubble contains the text 'IRA KUR LEE 2024'. The background is white with colorful abstract shapes: a large teal shape, a blue shape, and a grid pattern in the bottom right corner.

**IRA  
KUR  
LEE**  
2024

**Egilea / Edita** E.PE DONOSTIA KULTURA E.E.P  
Liburutegi zerbitzua - Servicio bibliotecario  
Konstituzio plaza, 1 • 20003 Donostia/San Sebastián

**Diseinua eta maketazioa / Diseño y maquetación** Ytantos

**Ale kopurua / Tirada** 10.300 ale - ejemplares

**Inprimatzailea / Imprime** ORVY Impresión Gráfica, S.L.  
Pol. Zubiondo, Parcela A-3 • 20120 Hernani (Gipuzkoa)

**Inprimatze-data / Fecha de impresión** 2024ko ekaina / junio 2024

# DONOSTIAKO UDAL LIBURUTEGIEN SAREA

## RED DE BIBLIOTECAS MUNICIPALES DE SAN SEBASTIÁN

### UDAL LIBURUTEGIAK BIBLIOTECAS MUNICIPALES:

**UDAL LIBURUTEGI NAGUSIA**  
BIBLIOTECA MUNICIPAL CENTRAL  
Tel. 943 48 14 86 / 943 48 14 88  
alderdiederliburutegia@donostia.eus

**UDAL LIBURUTEGI NAGUSIA. HAUR SAILA**  
BIBLIOTECA MUNICIPAL CENTRAL.  
SECCIÓN INFANTIL  
Haur Liburuaren Dokumentaziogunea  
Centro de Documentación del Libro Infantil  
Tel. 943 48 19 99  
haurliburutegia@donostia.eus

### KULTUR ETXEETAKO LIBURUTEGIAK BIBLIOTECAS CENTROS CULTURALES:

**AIETE K. E. LIBURUTEGIA**  
BIBLIOTECA C. C. AIETE  
Tel. 943 48 19 21  
aieteliburutegia@donostia.eus

**CASARES-TOMASENE K. E. LIBURUTEGIA**  
BIBLIOTECA C. C. CASARES-TOMASENE  
(ALTZA)  
Tel. 943 35 75 16  
tomaseneliburutegia@donostia.eus

**EGIA K. E. LIBURUTEGIA**  
BIBLIOTECA C. C. EGIA  
Tel. 943 29 80 24  
egialiburutegia@donostia.eus

**ERNEST LLUCH K. E. LIBURUTEGIA**  
BIBLIOTECA C. C. ERNEST LLUCH  
(AMARA)  
Tel. 943 48 18 67  
amaraliburutegia@donostia.eus

**INTXAURRONDO K. E. LIBURUTEGIA**  
BIBLIOTECA C. C. INTXAURRONDO  
Tel. 943 48 34 02  
intxaurrondoliburutegia@donostia.eus

**LARRATXO LIBURUTEGIA**  
BIBLIOTECA LARRATXO  
Tel. 943 39 26 25  
larratxoliburutegia@donostia.eus

**LARROTXENE K. E. LIBURUTEGIA**  
BIBLIOTECA C. C. LARROTXENE  
(INTXAURRONDO)  
Tel. 943 48 34 01  
larrotxeneliburutegia@donostia.eus

**LOIOLA K. E. LIBURUTEGIA**  
BIBLIOTECA C. C. LOIOLA  
Tel. 943 45 46 05  
loiolaliburutegia@donostia.eus

**LUGARITZ K. E. LIBURUTEGIA**  
BIBLIOTECA C. C. LUGARITZ  
(ANTIGUO)  
Tel. 943 48 38 36  
lugaritzliburutegia@donostia.eus

**OKENDO K. E. LIBURUTEGIA**  
BIBLIOTECA C. C. OKENDO  
(GROS)  
Tel. 943 29 78 94  
okendoliburutegia@donostia.eus

### UDAKO LIBURUTEGIA BIBLIOTECA DE VERANO:

**URGULL MENDIKO LIBURUTEGIA**  
BIBLIOTECA DEL MONTE URGULL  
Tel. 943 48 15 46  
urgullliburutegia@donostia.eus

### BESTE LIBURUTEGIAK OTRAS BIBLIOTECAS:

**AMUNDARAIN MEDIATEKA**  
MEDIATECA AMUNDARAIN  
Tel. 943 48 38 56  
amundarainmediateka@donostia.eus

**UDAL MUSIKA ETA DANTZA ESKOLA LIBURUTEGIA**  
BIBLIOTECA DE LA ESCUELA MUNICIPAL DE MÚSICA  
Y DANZA  
(ATOTXA-EGIA)  
Tel. 943 29 78 30  
musikaliburutegia@donostia.eus

**SAN TELMO MUSEOKO LIBURUTEGIA**  
BIBLIOTECA DEL MUSEO SAN TELMO  
Tel. 943 48 15 69  
bibliosantelmo@donostia.eus

**CRISTINA ENEA**  
Ingurumen Baliabideen Etxea  
Centro de Recursos Medio-Ambientales  
Tel. 943 45 35 26  
cristinaenea@donostia.eus